



DEIALDIA

(2017-2020/21 aldirako Hitzarmen Kolektiboaren III. kapituluaren, 25. eta 29. artikuluen artean, araututakoaren arabera)

ESKAINITAKO LANPOSTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

OBRETAKO IKUSKATZAILEAREN LANPOSTU 1:

Lanpostu huts bat, horretan ari zena mailaz igo delako.

Talde profesionala: teknikaria.

Lanpostuaren balorazioa: 183 puntu

Lan-baldintzen balorazioa: 3,5 puntu

Kanpoko fasearen

erreferentzia: **2018/000020**

KANPOKO FASEA: barneko deialdia hutsik edo eman gabe gelditu delako.

ESKAINITAKO POSTUAREN GAINEKO INFORMAZIOA

MISIOA:

SCPSAk kontratatutako lanak eta beste batzuek gure erakunderako gauzatutakoak zuzen eginda daudela ikuskatu eta egiaztatuko du; dauden proiektuetan, estandarretan eta araudian ezarrita dauden definizioen eta jasotako jarraibideen arabera; baldintza funtzionalak, kalitatekoak eta araudikoak betetzen dituzten azpiegiturak lortzeko, beren funtzionamenduan eta ustiapenean ondorengo arazoak saihestuta.

HELBURUAK:

1. Zehaztasuna, sistematizazioa eta fidagarritasuna ematea obran egindako behaketetan, datuetan eta neurketetan, kontrataren aldetik obra gauzatzean emaitza ezin hobea lortzen laguntzeko.
2. Datuak, aginduak eta egin litezkeen hobekuntzak egoki transmititzea lortzea, bai, hierarkiari dagokionez, nagusi hurrenari eta SCPSAko sail inplikatuak, bai eta kontratistei edo beste batzuei ere.

JARDUERAK:

1. Obrak gauzatzen direnean ikuskatu egin behar ditu, hornidurako, saneamenduko, hondakinetako araudiak, aplikagarria den gainerako araudi teknikoak eta administratiboak, eta proiektuaren baldintzak betetzen direla exijituta.
2. Tresna topografiko konplexurik eskatzen ez duten magnitudeetarako neurketak egin behar ditu. Egindako edo egiteko dagoen lanaren krokisa egin behar du, bai proiektuaren/obraren arduradunari eta bai, hark jakinda, beste batzuei informazioa emateko.
3. Obraren zuzendaritza taldean esku hartu behar du, bere eskumenen mailan, obra gauzatzea kontrolatuta araudiaren eta proiektuaren baldintzen arabera. Bere ezagutza teknikoaren bidez anomaliak detektatzen baditu, berehala konpontzeko exijituko du, nagusiari horren berri emanda. Kontratetako arduradunari egokiak diren aginduak helarazi behar dizkie.
4. Obraren material desberdinak eta erabili beharreko bitartekoak jasotzea identifikatu eta kontrolatu behar du, bai eta zuzen erabili eta gauzatzea ere. Obren eta haien materialen kalitatea kontrolatzean lagundu behar du, saiakuntza desberdinetan laguntzeko lanak egiteko aukera izanda.
5. Beste batzuek (hormigoien proba, lurzorua trinkotzea...) eta erakundeak berak (hornidurako laborategia) egindako kalitate saiakuntzak eta probak egitea koordinatzean esku hartu behar du.
6. Administrazioako parte edo agirien egiazkotasuna kontrolatu behar du, eta bai proiektuan aurreikusi gabeko unitateak egitea ere (kontraesana dakarten prezioak).
7. Hornidurako eta saneamenduko hoditerietan eta erregistroetan presioarekin eta estankotasunarekin lotutako obra-probak egiaztatu eta kontrolatu behar ditu.
8. Idatzizko txostenak egin behar ditu, obraren azken berrikuspenen eta bideo-ikusketzen egiaztapenen eta berrikuspenen bidez aurkitutako hutsen gainean.
9. Beste sail batzuetako langileekin batera, lanak koordinatzean esku hartu behar du, besteak beste hauetan: konexioak jada badauden sareetara, hargune berriak, desinfekzioa laginak hartzeko kalitate analisietan, obren ukitutako hondakinen edukiontzien eta garraioko markesinen kokapenean aldaketak egitea edo antzeko beste batzuk.
10. Bitarteko tekniko konplexuak eskatzen ez dituzten datuak hartzea, proiektuak idaztean erabiltzeko.
11. Eta, dituen gaitasunen eta eskumenen barnean, agintzen zaizkion gainerako zereginak egitea. Era berean, bere zereginak eta ezagutzak berrikuntza teknologikoetara eta prozesuen aldaketetara moldatu beharko ditu.

ESKATUTAKO GAITASUNAK

GAITASUN TEKNIKOAK:

Deskribatutako eginkizunekin lotuta, gaitasun tekniko hauek ebaluatuko dira:

- Hornidurako, saneamenduko eta hondakinetako SCPSAren ordenantzak eta araudi teknikoak ezagutzea, eta eraikuntzaren arloan aplikagarria den gainerako araudi tekniko eta administratiboa.
- Planoak interpretatzea, neurketak eta aurrekontuak.
- Eraikuntzako eta obra zibileko ezagutza orokorrak: materialak, makineria, oinarriko eraikuntza prozedurak eta kontrolatu beharreko alderdiak.
- Bulego teknikoko softwarea oinarriko mailan (Autocad edo Microstation).
- Bulegotika erabiltzaile mailan.

GAITASUN PERTSONALAK:

Misioa, helburuak, eginkizunak eta enpresan lanpostuak duen maila aintzat hartuta, gaitasun pertsonal hauek ebaluatuko dira, 2017-2030 aldirako SCPSAren Plan Estrategikoan jasotako balioetatik eratorritakoak.

Gaitasun orokorrak	Definizioa
Profesionaltasuna	Jokaera jarraikia, zorrotza eta arduratsua, lanpostuaren eginkizunei eta betebeharrei dagokienez.
Taldean lan egitea	Helburu komunak ulertu eta onartzeko gaitasuna, eta bai helburu horiek lortzeko beste pertsona batzuekin era eraikitzaile eta koordinatuan lan egitekoa ere.
Harreman soziala	Pertsonekin harreman positiboak eta asertiboak edukitzeko gaitasuna. Gaitasun honekin lotutako trebetasun sozialak.
Egonkortasuna	Lanean era kontrolatuan eta positiboan aritzeko gaitasuna, gorabeherarik izan gabe, baita nolabaiteko konplexutasuna duten eta ezustekoak diren egoeretan ere.
Ekimena izatea	Laneko egoeretan aurretiaz eragina izateko gaitasuna, arazoak saihestuta, laneko moduak berrikusita eta aukera hobeak bilatuta, ideia berritzaileekin.

EGOERA FISIKOA

Hautatutako pertsonak lanposturako fisikoki gaituta egon beharko du. Hartara, ez du izango jarduera gauzatzea eragozten duen gaitz edo minusbaliotasunik. Gaitza edo minusbaliotasuna ezkutatzea arrazoi nahikoa izango da emaitzak baliogabetzeko. Horrenbestez, egokia den ebazpenaren bidez Gerentziak izendatu baino lehen, mediku-azterketa egingo da, lanpostua betetzeko gaitasuna edo egokitasuna berresteko.

LAN-BALDINTZAK, EGOKITZEKO ALDIA ETA INDARRALDIA

Eskaintzen da:

Enpresa publiko bateko langile zerrendan sartzea.

Kontratu mugagabea, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen ordezte tasaren arabera (hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Bat. 5).

Eskatutako eginkizunekin eta baldintzekin bat datorren ordainsaria, Hitzarmen Kolektiboan hitzartutako ordainsarien sistemako baremoaren arabera.

Kanpoko faseko proba guztiak gainditu baina lanposturik lortzen ez duten hautagaiekin lan-poltsa bat sortuko da, aldi baterako ordezkapenak egin ahal izateko (eta erreleboa).

LAN-BALDINTZAK:

Eskaintutako lanpostuen lan-baldintzak SCPSAren Hitzarmen Kolektiboan ezarri eta araututa dagoenaren arabera eraenduko dira (oporrak, lanbide-taldea, balorazioa eta ordainsaria...).

Enpresak ematen dituen zerbitzuak publikoak direnez, lanpostuan aritu behar duen pertsonak berehala hasi beharko du hartan, eta behartuta egongo da, beharrezkoa bada, laneko lanaldi arrunta luzatzera.

PROBALDIA (kanpoko fasean):

Laneko benetako 16 aste.

INDARRALDIA:

Gertatzen bada hautatutako pertsonak ez betetzea lanpostua behin betiko (ez duelako egokitzeko aldia edo probaldia gainditu edo beste edozein arrazoiengatik), hautaketa prozesuan hurrengo tokian dagoenak egingo du.

HAUTAKETA PROZESUA ETA PROBAK FASE BAKOITZEAN:

1. KANPOKO FASEA: OPOSIZIO bidez ebatziko da (guztira 100 puntu izango dira)

Baldintzak:

- Lanposturako behar den **titulua: Eraikuntza eta Obretako LHIIko**, Eraikuntza Proiektuetako Goi Mailako Zikloko, Obra Zibileko Proiektuetako Goi Mailako Zikloko edo Eraikuntza Obrak Antolatzeko eta Kontrolatzeko Goi Mailako Zikloko titulua.
- Gidabaimena**, B motakoa.

Baloratu ahal izango diren gaitasun profesionalak:

- Esperientzia**, deialdian hasiera batean deskribatu direnekin lotutako eginkizunetan: 2 puntu urteko, gehienez 10 puntu.
- Bigarren tituluak eta gainerakoak**, lotura dutenak, baldintzatat jo ez direnak eta baldintzatat jotakoa lortzeko beharrezkotzat jo ez direnak (gehienez ere 5 puntu).

ALDAGAIAK	PROBAK							BALORATU AHAL IZANGO DEN IBILBIDE PROFESIONALA	GUZTI RA
	Testa, gaitasun intelektual a	Proba profesional teorikoa/praktikoa					Nortasunari buruzko galdeketa eta gaitasun profesionalen elkarrizketa	Baloratu ahal izango diren esperientzia eta titulazioa	
		Materialen proba	Planoen proba	Neurketen proba	Eraikuntzako proba	Proba Laneko Arriskuen Prebentzioa			
Adimen orokorra	15								15
Gaitasun eta trebetasun profesionalak		10	10	10	10	10		15	65
Gaitasun pertsonalak							20		20
BALIOA	15	10	10	20	10	10	20	15	100

PROBAK EGITEA (KANPOKO FASEA)

Pliken edo gutun-azal zigilatuen sistema erabiliko da, horretarako aukera ematen duten probetan. Ordena hau ezartzen da. Bi proba edo gehiago egin ahal izango dira proben deialdi beraren barnean, epaimahaiak hala egitea ezartzen badu:

- Test psikoteknikoak, adimen orokorra neurtzeko.
- Deskribatutako eginkizunei eta ezagutzei buruzko proba profesional teoriko-praktikoa, gaitasun profesionalaren maila neurtzeko helburuarekin. Bost proba teoriko-praktikoetako bakoitza (materialak, planoak, neurketak, eraikuntza eta Laneko Arriskuen Prebentzioa) baztertzaila izango da, ez bada gainditzen, gutxienez, puntu kopuruaren %50.
- Nortasun galdeketa eta elkarrizketa, lanpostuaren eginkizunekin lotuta, adierazitako gaitasun pertsonalak neurtzeko. Elkarrizketa, era berean, proba profesionalean eta curriculumean jasotako gaitasun profesionalak balioduntzeko eta/edo argitzeko erabiliko da.
- Esperientzia eta titulazio gehigarriak baloratzea hautagaitza finalisten kasuan baino ez da egingo.

Probetako bakoitza baztertzaila izango da, probaren puntu kopuruaren %50 ez bada gainditzen gutxienez. Probetako bakoitzean %50 lortzen duten hautagai guztiak **lan-poltsa** batean sartuko dira, aldi baterako ordezkapenak egiteko (eta erreleboa).

Proben balioespen irizpideak eta erantzun alternatiboa duten galderetan akatsak zigortzea probak hasi aurretik zehaztuko dira.

TITULUAK eta ESPERIENTZIA PROFESIONALA: Prozesua egin bitartean, tituluak eta esperientzia profesionala **egiaztatzeko** eskatuko da.

CURRICULUMA AURKEZTEA:

Interesa duten pertsonak IMren webgunean, "Lan eskaintzen" atalean, zehazten diren oharren arabera aurkeztu behar dute curriculumak: www.mcp.es/ofertas-de-empleo. 2018/000020 erreferentzia jarri behar dute, horrek mugatu gabe IMren Erregistroko aukera. Ereduaren arabera aurkeztutako eta osorik betetako hautagaitzak baino ez dira onartuko. Bidali aurretik egiaztatu behar da **formularioa** dela, hau da, **alda daitekeela edo datuak idatz daitezkeela** eta ez dela dokumentu inprimatua.

AURKEZTEKO EPEA

2018ko urriaren 22a artekoa.

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA:

- Epaimahaiko lehendakaria: Izaskun ZOZAYA YUNTA and., SCPSAko Administrazio Kontseiluko kidea.
 - Ordezkoa: Aritz AYESA BLANCO jn., SCPSAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
 - Titularra: Juan Ramón ILARREGUI TEJADA jn., Plangintzako eta Azpiegituretako zuzendaria.
 - Ordezkoa: Alfonso AMORENA UDABE jn., Azpiegituretako eta Ingurumeneko zuzendariordea.
 - Titularra: Carlos CARRASCAL GONZÁLEZ jn., Proiektuen eta Obren kudeatzailea I.
 - Ordezkoa: Pablo SANTILLÁN MORA jn., Proiektuen eta Obren kudeatzailea I.
 - Titularra: Rosa RETUERTA CORONA and., Herri Lanetako ingeniari teknikoa.
 - Ordezkoa: Javier ELIZONDO OSÉS jn., Proiektuen eta Obren kudeatzailea II.
- Enpresa Batzordearen aldetik:
- Titularra: Maite LARREA AZCÁRATE and., Enpresa Batzordeko kidea.
 - Ordezkoa: Iñigo GOICOCHEA LUQUIN jn., Enpresa Batzordeko kidea.

SARBIDERAKO IRIZPIDEAK BALDINTZA BERDINTASUNEAN:

IM-SCPSA erakundeak hartua du emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunarekiko konpromisoa. Hori dela-eta, espresuki gonbidatu nahi ditu deialdi honetara pertsona gaituak eta ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

HELEGITEAK:

Deialdiaren aurka, helegitea aurkeztu ahal izango da, Mankomunitateko lehendakariaren aurrean, ezarritako hedabideetan argitaratu eta handik aurrera hilabeteko epean.

Kanpoko fasea: Epaimahaiaren egintzen aurka helegitea aurkeztu ahal izango da, idatziz, hel egin nahi den egintza iragarri ondoren sei egun baldioduneko epean.

Epaimahaiaren jatorria duten egintzen eta ebazpenen aurka, edo erantzun ezaren aurrean, helegitea aurkeztu ahal izango da Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren aurrean, jakinarazi edo esan gabe ezezkoa eman eta hilabete bateko epean.

BALDINTZAK ONARTZEA:

Deialdian interesa duten pertsonak, bertan aurkezteagatik, lanpostuaren eskakizunak eta edukiak, deialdia bera eta hautaketa prozesuko probak onartzen dituzte.

Datuen babesa:

Datuak Babesteko Araudi Orokorrean ezarrita dagoena betetze aldera, jakinarazi behar dizugu formulario honetan biltzen diren datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla eta helburu bakarra publizitatea egindako hautaketa prozesua kudeatzea izango dela. Datu horiek ez zaizkio beste inori lagako, legezko xedapenek hala egitea agintzen badute izan ezik. Halaber, jakinarazi behar dizugu fitxategiaren arduraduna SCPSA izango dela eta harengana jo ahal izango duzula datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta daukazun gainerakoak gauzatzeko helburuarekin.

Pribatutasunari buruzko informazio gehigarria eskatu eta zure eskubideak bete ditzakezu helbide elektroniko honetan: protecciondatos@mcp.es, indarrean dagoen araudiaren arabera.